

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Igone Lamarain Cobo

*Eibar,
Gipuzkoa
(1980)*

Aurkibidea



Biografia



Eibarren jaioa, familia-ereduei buruzko elkarrizketa egin diogu. Ama bakarra da, eta bikiak ditu. Elkarrizketaren zati bat Ander Mayora lagunarekin batera egin diogu (Ander harreran hartutako bi umerekin bizi da).

Zintak

EIB-732

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-05-23
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Guraso bakarra izatearen erabakia; kontziliazioa

- **Erref:** EIB-732/002
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:00:51. **Bukatu:** 00:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

<p>Ama izatearen nahia gaztetatik izan du. Guraso bakarra izatea erabakia hartu aurretik, gertukoenekin hitz egin zuen. Sare bat izatea oso garrantzitsua da. Ama da bere zutabe nagusia kontziliaziorako, eta gero gertuko lagunak.</p>

Transkripzioa

- Familia-eredu desberdiñak... Zelakua da zure familia?
- Bueno, nere familixia igual zehazki zelakua dan ez dakit oso ondo esaten. Gu etxian bizi gara ni eta nere bi umiak.
- Eta zuk zela... nolatan erabaki zebe guraso izatia?
- Ba da... nik argi euki dot beti ama izatia nahi nebala, beti euki dot oso argi, bikotia/bikotekidea euki zein ez euki argi... nik uste dot oso

gaztetatikan argi euki doten gauza bat izan dala ama izan nahi... osea, nahi nebala ama izan. Eta, bueno, heldu zan momentua bikotekiderik ez nekala eta halan da be aurrera itxia erabaki nebala. Egixa da ez nebala hartu erabakixa nik bakarrik. Osea, ni konsziente naiz e... gurasuak be bat baiño gehixau diranian, bi diranian, ez dala erreza ume bat hezitzia, kontziliatzia ta hori guztia. Orduan, erabakixa hartzeko, in neban berba nere aiztiekin, batez be nere amakin eta beranduau nere aittakin, baiña lelengo nere amakin eta nere gertuko-gertuko lagunekin be bai. Ez neban hartu bakarrik erabakixa. Igual erabakixa bai hartu neban bakarrik, baiña ittera beste batzuk animau ninduten.

- E... ama bakarra zara.

- Bai.

- Eta sare bat eukittia komeni, ez?

- Bai.

- Gaiñera bizkixak.

- Bikixak dira, bai. Bost urte dakez. Bai. Bai inportantia da. Nik uste dot kontziliaziñuan inguruan askotan itten dogula berba eta badala... e... ez dakit... gizarte honen erronketa... erronka nagusixetako bat dala kontziliaziñua eta, teorian, inguruan asko itten dogula berba, baiña gero praktika oso-oso zaila da. Orduan, saria oso inportantia da. Nere saria nere oso gertuan hasten da: nere -ez dakit- zutabe nagusixa nere ama da kontziliaziñorako eta gero ba hortik aurrera ba batez be gertuko lagunak. Bai.

2. Kuadrilan, familia eredu ezberdinak daude

- **Erref:** EIB-732/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:05:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

<p>Beti egon dira familia-eredu ezberdinak baina ez zaie ikusgarritasunik eman.</p>

Transkripzioa

- Bueno, familia-ereduak azkenengo urtetan asko aldatu dia, ez? Ze lehen zan ama, aitta, eta umiak...

- Bai.

- Eta oin, ez dakit, zure inguruan eta... ez dakotzu izenik-eta esan biharrik, baiña badauz.. badau familia-eredu aniztasuna?

- Bai. Bueno nik uste dot familia-eredu desberdiñak beti egon dirala. Igual sekula ez jakue holako ikusgarritasunik emon, edo igual gutxiau ziran, baiña nik uste dot ama bakarrak, edo aitta bakarrak, edo umiak aitona-amonekin edo beste batzukin bizi dianak beti egon dirala arrazoi batengaittik edo bestiengaittik. Oin, igual, ez dakit dan bisibliaua, edo gehixau dauzen, baiña nik uste dot egon beti egon dirala. Egixa da, ez dakitt, guk askotan kuadrillan berba itten dogu, gure kuadrilla zentzu horretan ez dakit dan oso berezixa, edo... edo aniztasun haundixa dauan gure kuadrillan. Baiña nik uste dot gure kuadrilla zentzu horretan oso

anitza dala, osea, bai pertsonetan, eta bai gero pertsona bakoitzak osatzen daben familietan. Eta, orduan, ba bueno, nik uste dot kuadrillan aniztasun hori egotia bultzada bat be badala norberandako.

- Eta ze familia-eredu...?

- Kuadrillan?

- Bai.

- Bueno, ba, dauz familia-eredu ohikuak, igual gure kuadrillan gutxienekuak diranak; badau beste lagun min eta haundi bat harreran bi ume dauzkana; nere kuadrillan badauz bi emakume oin hiru ume dittuenak, bi emakume bikote dianak eta hiru emakume dittuenak; badauz... badau bikotekiderik ez daken pertsonak, hori be badala, eta... eta nik uste dot esan in bihar dala; badau seme-alabarik ez daken pertsonak... Bueno, nik uste dot zentzu horretan nahiko anitza dala gure kuadrilla. Eta gero anitza be igual, e... izendapenik ez eitteko garaixan be bai. Osea, gu bagara garana, baiña nik uste dot ez dogula berbarik itten zehazki bi emakumek seme-alabak dauzkela edo honen bikotekidia emakumia da, gizona da... Nik uste dot gure kuadrillan era... beste era batian berba itten dogula, ta igual ez dogula horrenbeste izendatzen; osea, beste barik, holan da eta punto.

- Etiketa barik edo ez...?

- Bai, bai.

- Naturaltasunez, azkenian...

- Bai, bai.

3. Ama bakarra izatearen beldurrak

- **Erref:** EIB-732/004
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:05:09. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

<p>Ama bakarra izatearen beldurrak. Seme-alabei buruzko erabakiak bakarrik hartzea. Ama bakarra izatearen erabakia hartu zuenean, inguruan eman zizkieten iritziak. Animo asko jaso zituen.</p>

Transkripzioa

- Bildurrik piztu xatzun ama bakarra izateko... izatia erabaki zebeñian?

- Bai! Ta oindiok badittut, bai, etengabe. Bai, bildurra gauza askok emoten deste bildurra, baiña ya beste pertsona batzuk sartzen diranian tartian ta beste pertsona batzuk zaintzia -gaiñera nere buruan bakarra eukitzia zeuan, hori holan da-, ba, bai, bildurrak erabakixa hartzeko garaixan, haurdun geratzen diranian, haurdunal.. naiz.. nitzanian, haurdunaldixan, etorri ostian... Bildurrak etengabe dittut eta bildur asko emoten deste erabakixek. Ba kasu hontan nik hartu bihar dittudalako umieri eragiten detsen erabaki asko eta neri nik bakarrik hartu bihar izatiak bildur asko emoten desta. Horrek emoten desta. Baiña, bueno, inguruan berba itten dot, horretarako arazorik ez dakat, eta badakat konfiantzazko jendia inguruan, horren inguruan, berba itteko. Eta, bueno, ba, eskerrak horri.

- Eta erabakixa hartu zebeñian, bueno, esan dozu lehen, ez zebela zuk bakarrik hartu, ez? ingurukuekin e... ingurukuen iritzixa eskatu zebela

eta... hor... jaso zebeu kontrako hola... "bai, baiña zelan ingo dozu hori", ala...?

- Ke ba, bapez! Kontrakua! Larrei animau nindutela pentsatzen dot askotan. Ba... lelengua, esan dot, holan gertuko... gertutikan, ba... nere aiztiekin eta nere amakin, eta esan zesten in nahi banaban aurrera, hor egongo zirala, eta egixa da hor egon dirala beti. Eta nere lagunak onartu ez, osea... ez dakit, animau in ninduten aurrera ittera. Bai. Eta asko eskertzen detset, e.

4. Familia eredu desberdinak hezkuntzan

- **Erref:** EIB-732/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Nahiz eta seme-alabak oraindik txikiak diren eta ez duen arazorik izan, hezkuntzan, aldaketak eman behar dirrela uste du, eredu normalizatua aita eta amaren familia-eredua delako.

5. Kontziliazioa ama bakarra izanda

- **Erref:** EIB-732/006
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Kontziliazioa ama bakarra izanda nolakoa den. Batzuetan deseroso sentitzen da laguntza eskatzen eta modu naturalago batean egin beharko liratekeela uste du. Lanarekin nola kontziliatzen duen amatasuna. Naturaltasunez hitz egiten du ama bakarra izatearen erabakiaz

6. Hurrei naturaltasunez galderak erantzutea

- **Erref:** EIB-732/007
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Seme-alabek modu naturalean eramaten dute familia-unitatean guraso bakarra egotea. Naturaltasuna ezinbestekoa da haurren galderari erantzuteko orduan.

7. Familia-eredu ezberdinei buruzko ipuinak

- **Erref:** EIB-732/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Geroz eta liburu eta ipuin gehiago daude familia-eredu ezberdinei buruzkoak eta asko eskertzen den zerbait da.

8. Haurdunaldian, bakardadea sentimendu handia

- **Erref:** EIB-732/010
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:17:31. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

<p>Guraso bakarra izatearen bakardade sentimenduaz, batez ere haurrak jaioberriak direnean. Erabakiak bakarrik hartu beharra, beldurrak... gehienbat haurdunaldian izan ditu.</p>

Transkripzioa

- Batzuk esaten daue ama bakarrak eta, bueno, pentsaitten dot aitta bakarrak dianak be berdin izango dala, lehenengo urtetan, umiak oso txikixak diranian, bakardade sentsaziñua... Gero ya umiak berbetan hasten diranian-eta ba... Ez?

- Bai.

- Ez? Gaiñera, [birekin]...

- Bai, bai...

- Ba... igual neri hori esan nontan batek, ama bakarra danak, hori: benetako gogorrena hasierako bakardede hori...

- Bai, nik uste dot bakardade gogorra badala, eta txikixak... edo jaioberrixak diranian zalantza asko badauzkazula. Askotan zalantza dakazu edo bildurra dakazu jendiakin konpartitzeko, erabaki asko hartu bihar dittuzu oso txikitatikan eta nik uste dot ez jakitia zeñekin konpartidu edo etxian denbora asko egotia, ba, horrek sortu ahal detsu bakardadia. Nik, igual, gero, umiak jaio osteko guztia neretako oso erritmo bizixan jua da; osea, jaio eta dana oso bizi-bizi jua da. Nik bakardade sentsaziño hori euki neban gehixau haurdunaldixan. Gero, jaio diranian, egixa da, txikixauak ziranian oin baiño, bai euki dotela, euki nebala, sentsaziño hori momentu batzutan: "Ze itten dot nik hamen etxian bi ume honekin?" eta. Ez? Osea, dana zan eurak, normala dan moduan. Baiña nik dakat sentsaziñua jaio osteko guztia oso bizi jua dala, arin jua dala. Arin denboran, e? bizkor jua dala denboran. Momentu kritikuak egon dira tartian, ba, bakardadia eta beldurrak...; nik uste beldurrek be bakardadian eragiten dabela asko.

- Eta pandemian, gaiñera...
- Eta pand... Bai, pandemia be bai. Bai. Pandemiaren justu bakardadia ez da sentidu nebala. Baiña... Beste gauza batzuk sentidu nittuala ba pandemian; oso gogorra izan zan, e, konfinamendua. Baiña nik esango nuke haurdunaldixan gehixau. Ba igual haurdunaldixa, bueno..., bueno, pixkat delikatua izan zan, denbora asko ein bihar izan neban etxian bakarrik, nere burua zaindu bihar nebalako... eta nik uste dot euki nebala bakardade sesaziño gehixau haurdunaldixan, denbora larregi pentsatzeko zer datorren, ya banekixanian bi etorriko zirala eta hori guztia, gero baiño. Egixa da jaioberrixak txiki-txikiak ziranian euki nittuala momentuak, baiña aldi berian dakat sensaziñua dana jua dala holan, oso arin.
- Bai gehixau da... Gehixau dala aurretik dakotzun bildurra: "Ai ama, ze ingo dot honekin...? Ze ingo dot?"
- Bai, bai, ni holan neuan, bai. Bai, bai, bai.

9. Eibarren euskaraz bizi daiteke

- **Erref:** EIB-732/012
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:20:37. **Bukatu:** 00:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Zer den euskara berarentzat: sentimendu bat, komunikatzeko era bat, bizitzako ikuspegi bat... Eibarren, oraindik lan handia egin behar bada ere euskararen inguruan, euskaraz bizitzeko aukera handiak daude

10. Familia-eredu ideala

- **Erref:** EIB-732/014
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:24:44. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Familia-eredu ideala

11. Familia-eredu ezberdinei buruzko komentarioak

- **Erref:** EIB-732/016
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:26:04. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Ezjakintasunetik jendeak komentario asko egiten ditu familia-eredu ezberdinei

buruz. Beraientzat naturala izan da dena, baina familia-eredu oinarrizkoa oraindik oso sustraituta dago.

12. Kristautasuna, familia-eredu tradizionala, haurren sexua...

- **Erref:** EIB-732/017
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:32:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa

Laburpena:

Kristautasuna eta familia-eredu tradizionala. Maitasun erromantikoa. Haurren sexuari buruz galdetzea.

13. Pertsona adina familia-eredu daude

- **Erref:** EIB-732/018
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:32:02. **Bukatu:** 00:33:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Familia eta harremanak

Laburpena:

<p>Familia-eredu ezberdinak daude. Oso errotuta dago familia bat izateko seme-alabak egon behar direnaren ustea.</p>

Transkripzioa

- Familia-eredu, bueno, gero ta gehixau dauz; esan dozu beti egon diala asko, baiña gaur egun, bueno, hola aukera batzuk edo familia... ez? Osea, aita ta ama, ze... ze... ze aukera... Zuen inguruan ze ikusten dozue edo...?
- Ander: Eske danetarik. Ez dakit, ez? Nik uste dot gaur egun, eske lehen esan doun moduan; zer da familia? Ez? Ba familia da elkar maite dabena jendia. Orduan, beti lotzen dogu familia be umiak eukitziakin, ez? umeren bat eukitziakin etxian. Baiña badauz familiak igual umerik ez daona, baiña familia bat da be bai. Izan ahal da bikote bat, izan ahal da lagun kuadrilla bat, izan ahal da aitona-amonak zaintzen dittuan billoba bat. Familia... Puf. Nik uste dot hartzen dabela hori, ba, oso-oso esparru zabala. Edo hartu bihako zabala. Eta holan ulertu bihar dogula. Aukerak milla, bakoitzak eitten... bakoitzak eraikitzen dabena. Orduan, egongo da emakume bat eraikiko dabena, ba, seme-alabak eukitta familia hori. Egongo da beste bat, ba, beste emakume baten albuana. Egongo da beste emakume bat, bere gurasuekin eingo dabena. Egongo da beste emakume bat, ba, bakarrikan erabaki dabena bizitzia, baiña lagunez inguratuta. Orduan, zer dago? Familia-ereduak? Ba pertsonak aiña familia-eredu esango neban daola.

14. Familia-eredua oso zurruna da instituzioetan

- **Erref:** EIB-732/020
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:36:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Koronabirusa

Laburpena:

Familia-eredua oso zurruna da instituzioetan. Igone haurdun zegoenean, ez zioten uzten ekografia bikotea ez zen norbaitekin joaten. Instituzioen aldetik, familia-eredu tradizionala oso errotuta dago eta aldatu beharreko zerbait da. Covid-aren konfinamenduaren ostean kalera ateratzeko edo elkartzeko erabili zen "familia-eredu" kontzeptuari buruz.

15. Familia-eredu ezberdinak pandemian

- **Erref:** EIB-732/021
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:38:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Koronabirusa

Laburpena:

Pandemiak, zentzurik ez duten arau asko agerian utzi ditu, adibidez familia-unitatearen kontzeptuan. Osakidetzak ez ditu aurreikusten guraso bakarreko familia unitateak.

16. Amatasun eta aitatasun sena

- **Erref:** EIB-732/022
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:38:25. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Pertsonaren araberakoa da haurrak zaintzeko izan dezakeen gaitasuna. Oraindik errotuta dago gizonezkoak ez direla gai haurrak zaintzeko. Amatasuna eta aitatasuna ulertzeko modu ezberdinak daude.

17. Emakumeak haurrak izateko presioa; komentarioak

- **Erref:** EIB-732/023
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:43:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeek, haurrak izateko presio handiagoa dute. Gizonezkoek ez dute jasaten presio hori. Komentarioak, estereotipoak, aurreiritziak.

18. Amatasunaren idealizazioa

- **Erref:** EIB-732/024
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:43:24. **Bukatu:** 00:44:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Amatasuna idealizatua zuen aspalditik eta ondo joan zaio.

19. Jabetzaren ikuspegia eta amatasuna

- **Erref:** EIB-732/027
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:46:06. **Bukatu:** 00:48:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Jabetzaren ikuspegia eta amatasunaren arteko erlazioa.

20. Aitatasuna harrerako haurrekin

- **Erref:** EIB-732/028
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:48:26. **Bukatu:** 00:52:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Anderrek bi haur ditu harreran. Aitaren papera bete arren, ez da haien aita. Haurrek badakite aita bat badutela eta naturaltasunez bizi due harrerako familia batean bizi direla.

21. Zaintzaren erronka; aiton-amonak

- **Erref:** EIB-732/030
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:55:56. **Bukatu:** 00:59:04

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Familia eta harremanak

Laburpena:

Aiton-amonen rola. Demografiaren aldaketak. Zaintza era ezberdinak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com